

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

150. zenbakia

Data 1989-08-09

5172 orria

EUSKARAREN ERABILERA NORMALTZEKO UDAL ORDENANTZA

SARRERA

Euskara, Euskal Herriko nazio-hizkuntza delarik, Usurbilgo Udal eta Udalerriko hizkuntza ere bada.

Udalaren helburua euskara, herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere bihurtzea da eta gainerako administrazio zerbitzuetarako zirkuito elebidunak sortzea, euskaraz sartzen den edozein idazki. Euskarak izan behar du Usurbilgo ihardueran normalki erabilitako lan-hizkuntza. Lau bost urtetako gehienezko epea finkatzen da Udal Administrazio honetako zerbitzuak Ordenantza honetan bertan xedatzen denari egokitzeko.

Euskarak herritar guztien elementu integratzailea izan behar du, eta Usurbilgo auzotar guztientzat ha izan dadin saiaturako de Udala.

Usurbilgo Udalak, Ordenantza honekin, tresna egokia bereganatzen du, garatu asmoz ari den euskararen defentsaren bidetik jarraitzeko. Ordenantza hnek euskararen erabileraren Sustapen eta Normalizaziorako Udal Ordenantzaren forma juridiko hartzen du.

Bestalde, hainbat eta hainbat urtetan jasan duen zokoratze-prozesuaren ondorioz, euskara normaltasun sozialaren egoeratik urrun dago. Hortaz, euskararen normalkuntza osoa lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Usurbilgo Udalak euskararen erabilpenari, euskara Usurbilgo Udal-ihardueraren eta udalerriaren hizkuntza izatera iritsi arte.

Hala ere, Euskal Herriko herritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz Usurbilgo Udalak honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

- a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko edota idatzizko harremana euskaraz izateko eskubidea.
- b) Udalak antolatu, gestionatu edo lagunduriko ikasketak oro euskarazko ereduatan egiteko eskubide zinezkoa.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabideetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileretan euskaraz iharduteko eskubidea.

I – APLIKAZIO EREDUA

1. Artikulua.

Usurbilgo Udal-Administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen euskararen eta gaztelaniaren erabilera Ordenantza honek ezartzen dituen xedapenak arautuko dute.

II – HIZKUNTZEN ERABILPEN OROKORRA

2. Artikulua.

Usurbilgo Udalak, era orokorrean, euskara eta gaztelania erabiliko ditu bere harremanetan, honako artikuluetatik ondoriztatzen diren berezitasunez, eta ahal den guztietan euskara soilik.

III – BARNE ERABILPENA

3. Artikulua.

Izaera administratiboko barne iharduerak ahal den guztietan euskaraz egingo dira, eta besteetan hizkuntza bietan (elebitasun normalizatzailea), Gobernu Batzordeko aktak, jakinerazpenak, zenbait Batzorde Informatiboak...

4. Artikulua.

Usurbilgo organo ezberdinek erabilitako barne-inprimaki guztiak euskaraz burutuko dira. Euskarari lehentasuna ematen dion bertsio elebidunak interesatuen esku egongo dira.

5. Artikulua.

1. Bulego eta lan geletako errotuloak eta gainerako mota bereko adierazleak, euskaraz egingo dira.

2. Paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre-zigiluak eta antzeko beste inprimakiak, euskaraz egingo dira.

6. Artikulua.

Ordenagailuen programak eta Udaleko dependentzietan erabiltzeko eskuratutako material guztiak, hizkuntza bietan egon beharko du, euskarari lehentasuna emanez, (elebitasun normalizatzailea) eta euskaraz funtziona dezan egokituta.

7. Artikulua.

Usurbilgo Udalak Euskal Herriko esparruan, hirugarren batzuei enkargatutako azterketa, proiektu eta antzeko lanak, euskaraz ala hizkuntza bietan, euskarari lehentasuna emanez, entregatu beharko diote Udalari.

IV – ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

8. Artikulua.

Usurbilgo Udalak, beste Administrazio Publikoei nahiz erakunde ofizialei, berauek Euskal Herriko lurralde-esparruaren barruan daudenean, zuzendutako dokumentazioa euskaraz idatziko du.

9. Artikulua.

Beste Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialek Usurbilgo Udalari zuzendutako dokumentazioa, berau Euskal Herriko lurralde esparruaren barrutik datorrenean, euskaraz iritsi dadin eskatuko du Udalak.

10. Artikulua.

Euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialek nahiz Administrazio Publikoetatik jasotzen den dokumentazioa euskaraz ez balego itzuli egingo da jatorrizko tokira, atzera berriz euskaraz idatzita bidali dezaten eskatuz.

11. Artikulua.

Usurbilgo Udaleko dokumentuak, Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpo dauden gainerako beste administrazioetara zuzendurik daudenean, euskaraz eta dagokion hizkuntzan idatziko dira, edo egokiagozat joko balitz, dokumentua jasoko duen administrazioaren hizkuntza ofizialean.

12. Artikulua.

Usurbilgo Udalak Euskal Herriko lurraldeen esparrutik kanpoko Administrazio Publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzendutako Udalaren dokumentuen kopiak gaztelaniaz edo dagokion administrazioaren beste hizkuntza ofizialean izapidatuko dira (testua euskarazko orijinalaren itzulpena dela adieraziz), edota euskaraz, gaztelaniarako edo beste hizkuntza ofizialerako itzulpenarekin batera.

13. Artikulua.

Euskal Herriko lurralde-esparrutik kanpoko Administrazioek nahiz erakunde ofizialek Usurbilgo Udalari zuzendutako dokumentuak, lurraldean lurraldeko hizkuntza ofizialean idatzirik onartuko da.

V – ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK

14. Artikulua.

Udalerriko esparruan nahiz Euskal Herrikoan kokatutako pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinarazpenak euskaraz eta dagokion hizkuntzan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea). Herritar edo pertsona fisiko edo juridiko batek euskaraz eskatuko balu, hala zuzendu beharko litzaioke. Herritar euskaldunei, eta herriko talde edo elkarteei euskara hutsez zuzenduko zaizkie.

15. Artikulua.

Euskal Herriko esparrutik kanpo kokatutako pertsona fisiko edo juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinerazpenak normalki euskaraz eta dagokion hizkuntzan eginak zuzenduko zaizkie, euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea).

16. Artikulua.

Administrazioak euskaraz nahiz gaztelaniaz onartuko ditu zuzentzen zaizkion pertsona fisikoen komunikazioak, baita, hala dagokionean, berriemailearen lurraldeko beste hizkuntza ofizialean eginikoak ere.

17. Artikulua.

Euskara hutsezko inprimakiak eskainiko zaizkie herritarrei. Norbaitek gaztelaniaz eskatuko balitu, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunean prestatutakoak emango litzaizkioke.

18. Artikulua.

Eraginak Euskal Herri barnean izan behar dituzten dokumentuak eta inprimakiak euskaraz egingo dira. Euskal Herritik kanpoan eraginak dituztenak, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunean idatziko dira.

19. Artikulua.

Espedienteen kopien luzapenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea). Norbaitek euskaraz eskatuko balitu horrela luzatu beharko litzaizkioke.

20. Artikulua.

Funtzionariak euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harreman ofizialetan. Hala ere, herritarrek ondoren egiten duten ahozko hizkuntzaren aukera librean errespetatuko dute jarraitzerakoan.

21. Artikulua.

Udalak izenpetzen duen kontratazio-dokumentu oro euskaraz ala euskaraz eta dagokion hizkuntzan idatzita egongo da euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea).

VI – OHAR, ARGITALPEN, ETA IHARDUERA PUBLIKOAK

22. Artikulua.

Udal-administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen xedapenak hizkuntza bietan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea), euskarazko formaren kalterik gabe, nolahi ere, eta ahal den guztietan euskara hutsean.

23. Artikulua.

1. Aldizkaria, txartelak eta, orohar, Udalaren argitalpenak... hizkuntza bietan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez (elebitasun normalizatzailea), euskarazko formaren kalterik gabe, nolahi ere, Euskal Herriko lurralde-esparrutik kanpora begira bereziki zuzenduak izan ezik. Hauek euskara/gaztelania administrazioaren hizkuntza ofizialean egingo dira.

2. Udalaren argitalpen eta txartelen bertsioa, beste hizkuntzaren batetan ere argitara daiteke eta salbuespen gisa, beren xedea dela medio, argitalpenak beste hizkuntzaren batetan egin, dagokien administrazio-atalaren erizpidearen arauera.

24. Artikulua.

Erabilera zabala duten oharrak, txartelak etab. Piktogramaz azal daitezkenak eta komunikazioa ziurtatzen denean, euskaraz idatziko dira.

25. Artikulua.

1. Udal-Administrazioa eta bere menpe dauden erakundeetatik datozen oharrak, iragarki publikoak eta era guztietako publizitatea, hizkuntza bietan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez, eta, kasua halakoa denean euskara hutsez.

2. Euskal Herriko esparrutik kanpo, publizitatea bertako hizkuntzan egingo da.

26. Artikulua.

Administraziozko kargudunen iharduera publikoa euskaraz ala hizkuntza bietan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, iharduera hori karguaren eginkizunen alorrekoa denean.

VII – ERREJISTRO

27. Artikulua.

Udalaren bulegoetako Erregistro Administratiboetan, inskripzioak euskaraz egingo dira, zeinahi delarik ere aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza.

28. Artikulua.

Erregistrotik luzatuko ziurtapenak euskaraz eskeiniko dira. Beti ere, eskatzaileak gaztelaniaz eskatuko balu aukera hori errespetatuz.

VIII – PERTSONALAREN BIRZIKLAIA

29. Artikulua.

Udalak bere helburutzat hartzen duen gizarte-Izaera eta Izaera Orokorra duten zerbitzu eta Unitate Administratibo guztiak hizkuntza bietan lanean jartzea eta gainerako Zerbitzu eta Unitate Administratiboetan euskarazko zirkuito komunikatiboak sortzea.

30. Artikulua.

Aurreko artikuluan markaturiko helburu hau lortzeak eskatzen du aurretik, Udaleko lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehaztea. Beraz, Usurbilgo Udal Plenoak 1985eko azaroak 4ean onartutako hizkuntza eskakizunak indarrean egongo dira Ordenantza honen legezko onespena egiten denetik bost urtetako epea amaitu arte. Hizkuntza eskakizunak, eranskin gisa gaineratuko zaizkio Ordenantza honi.

31. Artikulua.

Aurreko artikuluan aipatu helburua betetzeaz gain, Ordenantza honetan herritarrei aitortutako eskubideak benetakoak eta iragankorrek izan daitezen, beharrezko neurriak hartuko ditu Udalak. Horretarako beste zenbait neurrien artean, euskarazko ikastaro trinkoetara joateko baimena emango die Usurbilgo Udalak, Administrazio-atal bakoitzarekin adostasunean, beren eginbeharrak betetzeko behar dituzten euskarazko ezagupenak ez dauzkaten langile-funtzionario guztiei.

32. Artikulua.

Ordenantza honen arauera, euskara, Usurbilgo Udalean eta bere menpeko erakundeetan, zerbitzu-hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango denez, lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak jadanik betetzen dituzten enplegatuek, euskaraz ere burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, euskalduntze plangintzaren barruan, euskaldunduz doazen heinean, beren lana apurka-apurka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagozkien hizkuntza eskakizunak eskuratzean, erabat euskaraz ihardungo dutelarik eta beren euskarazko ihardunaren itzulpena beraiei ezin ukatu izango zaielarik.

Itzulpenaren beharra duenaren esku dago itzultzailetza zerbitzuaz baliatzea. Bestalde, Udalaren Euskara-Zerbitzua izango da, herritarren hizkuntza aukera libre bermatzeko, hala eskatzen dutenean gaztelaniaz eman behar dena gaztelaratuko duena, Itzultzailetza-Zerbitzuaren bidez.

33. Artikulua.

Usurbilgo Udalean, lekualdaketak, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu berri batera heltzeko, ezinbesteko baldintza da lanpostuari dagozkion hizkuntza eskakizunak betetzea.

Horretarako, Udaleko lanpostu guztien zerrendak berak jasoko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntza eskakizunak. Eta urteko aurrekontuek lanpostuen erlazioarekin batera, urte horretan Udalean egingo den lanpostu-eskeintza epe barruan aurkeztuko da, Udalbatza plenoak onar dezan.

34. Artikulua.

Udal-Administrazioak, aurrikusitako helburuak lortzeko iharduera-plangintzak egingo ditu.

IX – PERTSONAL BERRIAREN HAUTESPENA

35. Artikulua.

Era berean, Ordenantza honetan zehazten diren lanpostu elebidunetan lan egiteko Usurbilgo Udalak etorkizunean kontratatuko dituen langile-funtzionario guztiak beren iharduera euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izan beharko dute.

36. Artikulua.

Euskararen ezagupena aginduzkoa ez den gainerako plaza guztietan euskararen ezagupena meritu bezala kontsideratuko da.

37. Artikulua.

Usurbilgo Udaleko lanpostuez funtzionario nahiz laneraentzapean jabetu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da, hala egokitzen denean, lanpostuari dagozkion hizkuntza eskakizunak egiaztatzea.

38. Artikulua.

Hizkuntz eskakizunak betetzen dituen pertsonarik ez balego, hutsik utziko da plaza, berriro deialdia egiteko.

X – EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN

39. Artikulua.

Euskara Gizarte-Esparru guztietan erabil dadin eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Ildo horretan, hiru dira euskararen erabilera Usurbilgo Udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak bere gain hartzen dituen bitarteko nagusiak:

a) Zabalpen funtzionala: euskara gizarte-bizitzan gero eta presenteago egon dadin, planak bideratzea.

b) Zabalpen demografikoa: elebidunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratu.

c) Zabalpen geografikoa: Euskara Usurbilgo herriko auzo eta auzune guztietara zabaltzea.

Beraz, euskararen erabilera ziurtatu, bultzatu eta gizartearen erabilpen-esparru guztietan orokortzeko xedez, ahalegin berezia egingo du Usurbilgo Udalak.

40. Artikulua.

Usurbilgo Udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta orohar, leku izenak, Usurbilgo Udalak finkatuko ditu, errespetatuz kasu guztietan euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria, hizkuntza bakoitzaren grafia propioarekin.

Aurreko parrafoan aipatu izendegi ofizialei buruz gatazka sortuz gero, Korporazio Lokalak, Euskaltzaindiarekin harremanetan jarri ondoren, beharrezko den erabakia hartuko du.

41. Artikulua.

Herribideetako eta kalebideetako trafiko seinale eta iragarpenak oro euskaraz jarriko dira.

42. Artikulua.

Usurbilgo Udal garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz ala hizkuntza bietan, euskarari lehentasuna emanez, egin daitezten, neurri eraginkorrek hartuko ditu Udalak. Batez ere, pertsonalaren, errotulazioaren eta publizitatearen alorretan bereziki eraginez. Era berean Usurbilgo Udalerrian abiapuntua edo geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

43. Artikulua.

Gure herriko bizitza sozial eta kulturalaren eremu guztietan euskararen sustaketa eta erabilera –merkatal, kultur, gizarte, kirol, erlijio, eta beste zeinnahi motatako entitateetan- gehitu dadin ahalegin berezia egingo du Udalak, honako helburuei arreta berezia jarritz.

1. Urtean zehar egiten dituzten erabilera publikoko idatzizko iharduerak –idazki, iragarki, txartel, ohar etabarren testua- euskaraz idatzi ditzaten.

2. Urtean zehar egiten dituzten erabilera publikoko ahozko iharduerak –jakinerazpenak, propaganda, abisuak, etab.- euskaraz adierazi ditzaten.

44. Artikulua.

Udal-instalazioak erabiltzeko edota zerbitzu prestakuntzarako (oholtzak, hesiak...) udal-baimena emateak Udal-Ordenantza honetan bertan jasotako betebeharrak kontutan hartuko ditu.

Euskara zerbitzuaren bidez, Udalak, aldian-aldian, ohizkotasunez burutzen diren ekintzetan (entrenamenduak, partiduak, ikastaroak, ekitaldiak, lehiaketak, jaialdiak, etab...) betebeharrak kontutan izaten den aztertuko du.

Ekintza horietan zehar, euskarak ezarritako tratua jasoko ez balu, Udalaren esku geratuko litzateke, bere jabetzapeneko instalazioak erabiltzeko baimena eta baldintza buruzko erabakia, hala nola subentzio kopurua murriztearena.

45. Artikulua.

Udalak bere Udal-Ordenantzetan subentzio-sistema bat jasoko du elkarteak, merkatal, aisia eta kultur, kirol entitateak subentzionatzeko, hurrengo erizpide hauei jarraituz:

1. Euskara hutsez idatzitako errotuloek udalari ordaindu behar zaion tasaren %50eko subentzio ekonomikoa edukiko dute gehienezko 10.000 pezetako mugapean.
2. Errotuloetan izen eta deiturak besterik agertzen ez direnean, ez da inolako subentziorik egongo.
3. Publizitate mota oro euskara hutsez egiten duenak, publizitate-zergarik ez du ordainduko, baina argitara eman aurretik, froga bat Udaleko Euskara-Zerbitzuari aurkeztu beharko dio, gero subentzioa jaso ahal izateko.

46. Artikulua.

Obra-baimenen eskaera euskaraz egin eta ondorengo tramitazio osoa euskara hutsean egin dadin, eskaera euskaraz egiten duenari eta bere eskaerari jarriki idatzizko tramitazio guztia euskaraz egiteagatik, obra-baimenagatik ordaintzea dagokion tasaren %50aren subentzioa emango zaio 3.000 pztako gehienezko mugapean. Eskatzaileak, eskaera hori egiteaz gain, berak ere espedientearen tramitazioan berari dagokion guztian euskaraz ihardun beharko du, subentzio hori josoko badu. Dirulaguntzarako aukera honek eraginkortasunik izan dezan, Udalarengana obra-baimen eske joaten den guztiari artikulua honen eta 44.aren berri emango zaio.

47. Artikulua.

Usurbilen ematen den irakaskuntza ez unibertsitariar, euskarazko irakaskuntza orokortu dadin, saio berezia egingo du Udalak, batez ere matrikulazio-epeak irekitzerakoan, euskarazko eredia aukeratu duten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio, eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezten. Era berean, eskola mundua eta eskolumeen arteko giroa euskalduntzeko iharduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Guzti hori ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

48. Artikulua.

Irakaskuntza unibertsitariari dagokionez, euskarazko ildoak bultzatzeko, eta bereziki Usurbilgo herriko ikasleak unibertsitatean euskarazko ildoetan matrikulatu daitezten ahalegin berezia egindo du Udalak.

49. Artikulua.

Lehen hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein duten haurrek etorkizunean euskalduntzeko eragozpenik izan ez dezaten eta, hain zuzen, etxean eskuratu ezin dezaketan

euskara horretaz jabetzeko Usurbilgo Udalak, euskarazko ereduak bultzatuko ditu hartzaindegietan bide batez,

hauek berreuskalduntzeko duten garrantziaz eta duten kostoz jabeturik, irakaskuntza sarean sartzeko bideak zabaldu daitezzen eskatuz.

50. Artikulua.

Hizkuntza normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusienetakoa euskaraz hitzegiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitzegiteko prest daudenak alfabetatzea denez, lan horretan dabilzan eta izaera publikoa duten ente edo erakundeak lagunduko ditu Udalak, bai diruz bai azpiegituraz, jadanik martxan daudenei kompetentziarik egin gabe.

51. Artikulua.

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezzen butzatzeko asmoz, saio bereziak egingo ditu Udalak, haur, gazte eta helduentzat kultur eta aisia ospakizun bereziak euskaraz antolatuz. Era berean, euskarazko kreatzioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, herritarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak emango ditu, horretarako ipuin, literaturaren inguruko eta hala nola bidezko erizten diren beste zenbait ekintza burutuko dituelarik.

52. Artikulua.

Euskararen presentzia komunikabideetan indartzeko, Usurbilgo Udalak komunikabideei bidaliko dizkien oharra, jakinerazpenak, etabar, euskaraz ala hizkuntza bietan bidaliko ditu, euskarari lehentasuna emanez. Halaber, harremanetan jarriko da komunikabide horien arduradunekin Usurbilgo Udalarari buruzko informazioa euskaraz ere atera dezaten.

Bestetik, euskara hutsezko komunikabideak bultzatzeko asmotan, Usurbilgo Udalak ateratzen duen publizitatea, nazio mailako zabalkundea duten euskal komunikabideetan, euskaraz argitaratzeko erabakia hartzen du.

53. Artikulua.

Usurbilgo Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normaltzeko lana ezinbestekotzat jotzen badu ere, derrigorrezkotzat jotzen du, era berean, Udalerrian eta Euskal Herri osoan euskararen normalkuntzarako zer esana baduten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitea. Euskara Usurbilgo Udalean eta Udalerrian normaltzen bada, denon elkarlanaren fruitu besterik ezin bait daiteke izan. Horrexegatik, Usurbilgo Udalak, pertsona eta erakunde hauen lana eta berea koordinatu asmoz, Euskararen Batzorde Informatibo zabal bat antolatuko du.

XI – EUSKERAREN MODERNIZAZIOA, BATASUNA ETA NORMALKUNTZARAKO AZPIEGITURA

54. Artikulua.

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoan zuzendaritza eta jarripenaz Udaleko nahiz Eskualdeko Euskara-Zerbitzu Teknikoa arduratuko

da, Udaleko Euskararen Batzorde Informatiboak esandakoa kontutan hartu ondoren eta jasotako erizpideen arauera, markatutako ildotik.

Udaleko Euskararen Batzorde Informatiboari eta Udaleko gainerako organo politikoei dagokie, beraz, Udalaren hizkuntza normalizaziorako erabakia, proposatu eta eztabaidatu ondoren onartzea. Hitz batez, Udalaren zeregina da, aldiz, erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta beroien zuzendaritzaz eta jarripenaz arduratzea.

Era berean, Euskararen Batzorde Informatiboa, Usurbilgo Udalerrian euskara normaltzeko lanetan diharduten pertsona, elkarte, erakunte eta gizarte esparru ezberdinen eztabaidarako elkargunea izango da. Udalaren hizkuntza normalizaziorako ihardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko erizpideak emateaz arduratuko da. Bestalde, Euskara-Zerbitzu Teknikoa saiatuko da, era berean, Euskararen Batzorde Informatiboko partaideek behar duten laguntza teknikoa eta azpiegiturazkoa ematen. Usurbilgo Euskararen Batzorde Informatiboak markatutako ildotik, Euskara-Zerbitzua Teknikoa eta Udaleko nahiz Eskualdeko Itzultzaile-Zerbitzua izango dira euskaraz egindako lanaren prestaketaz, idazkeraz eta gainbegiraketaz arduratuko direnak, hala nola pertsonaleko lankideei jatorrizko dokumentuak euskaraz idazten lagunduko dietenak.

55. Artikulua.

Usurbilgo Udalak, Ordenantza honetan xedatzen dena bideratzeko, ezinbestekotzat jotzen du aurreko artikuluan aipatu azpiegituraz jabetzea, eta ildo horretan, bere buruari bi urteko epea jartzen dio azpiegitura hori bideratzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Usurbilgo Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntz erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontutan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara-Zerbitzua izango da, beti ere Ordenantza honen ildotik, hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin, Udaleko Zerbitzu eta Departamendu guztiak informatuko dituen. Guzti hori, erabakia dagokion Udal organoek hartzearen kalterik gabe.

Bigarrena.

Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotakoak berenganatu egin beharko dituzte.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo ttikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa berezi xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko Organo Exekutiboek.